



Bergarako
Udala

ANGIOZARKO ESKOLA ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2020ko martxoaren 13an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Argiñe Sagastume Berasategi andrea, Angiozarko eskolako zuzendaria, Angiozarko eskolaren ordezkartzan.

Bi aldeak elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengoa

ADIERAZI DUTE

A) Angiozarko 6. zenbakian kokatutako eraikinean 3 espazio nagusi daude. Haur Hezkuntzako aldea, Lehen Hezkuntzako eta *Arbiaska* aretoa. Udalak, ludoteka zerbitzua eskaintzeko Haur Hezkuntzako espazioa erabiltzen du eta eskolak hainbat gai lantzeko *Arbiaska* aretoa erabiltzen du.

-943761619 telefonoaren erabilera konpartitzen dutela, baita internet zerbitzuarena eta fotokopiagailuarena ere.

B) Angiozarko eskolak hainbat bidaia egiten ditu Bergarako erdigunera, baina garraio horrek eskolarentzat gastua suposatzen du: herriko liburutegira, museora, igerilekura, alde zaharra bisitatzera, etab... Eskolatik adierazi dute Bergarara jaitsiko liratekeena baino gutxiago jaisten direla garraio gasturik ez izateko. Udalak herriko ikastetxe guztietako umeei herriko ekipamendu desberdinetara joateko aukera Berdintasuna bermatzeko diruz lagundu nahi ditu eskola orduetan egingo diren garraio gastu hauek.

D) Bi aldeek gai hauek hitzarmen batean jaso nahi dituzte.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartu dute

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Eskolak *Arbiaska* aretoa erabili ahal izango du, eskola orduetan, beraien antolaketak horrela eskatzen duenean. Orokorrean, *Arbiaska* Aretoaren erabilerarako zehaztuta dauden erabilera arauak jarraituko dira (*ikus eranskina*).

Ludoteka zerbitzuak, eskola orduetatik kanpo, eskola erabili ahal izango du.

Bai kasu batean, bai bestean, premia duen zerbitzuaren arduradunak aurrez besteari jakinarazi beharko dio.

BIGARRENA: Konpartitzen diren telefono, internet eta fotokopiagailu gastuak ondoren jasotzen den bezala banatuko dira.

	Angiozarko eskola	Bergarako Udala
Internet eta telefonoa	%71,5	%28,5
Fotokopiagailua	%71,5	%28,5

Fakturak eskolak ordainduko ditu eta udalak urtean behin, berari dagokion zatia ordainduko dio, aurrez, fakturen kopiak aurkeztuta.

HIRUGARRENA: Eskolatik Bergarara joan-etorria udalak diruz lagunduko du. Joan etorri hauek beti eskolako jardunera bideratutakoak izango dira eta Herribusean egingo dira, horretarako eskolako zuzendaria aurrez Herribuseko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da. Eskola arduratuko da Herribuseko bidaiak ordaintzeaz, eta Herribusarekin adostuko du bidaia ordua eta eguna.

Fakturak eskolak ordainduko ditu eta udalak urtean behin, gehienez, fakturen zenbatekoaren %75 ordainduko dio eskolari, gehienez ere 550€ ikasturteko.

LAUGARRENA: Ludoteka zerbitzuak eskolako den materiala erabiltzen duenez (puzzleak, jolasak...). Hauen erabilera eta apurketa konpentsatzeko, urtero 100 euroko inbertsioa egingo du Udalak (eskolarekin adostuta zer den behar dena) material ludiko honetan. Inbertsio hau gabonetan egingo da eta eskolak fakturak aurkeztuko dizkio udalari.

BOSGARRENA: Kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da eta urtez urte luzatuko da, gehienez ere 2023 urtea bukatu arte, bi aldeetako batek kontratua bertan behera utzi nahi duela idatziz adierazten ez badu, epealdia amaitu baino hiru hilabete lehenago.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.

Gorka Artola Alberdi
Bergarako Alkatea



Argiñe Sagastume Berasategi
Angiozarko eskolako zuzendaria



ANGIOZARKO ESKOLA

Angiozar z/g 201578 943761619

012273aa@hezkuntza.net

angiozar.eskolatxikiak.org



ESKOLA ETA LUDOTEKAREN ERABILPENA

-Astelehenetik ostiralera:

-Eskola: 9:00 – 16:30 : 7,5 ordu

-Ludoteka: 16:30 – 19:30 : 3 ordu
10,5 ordu

-Hiruko erregelak aplikatuta erabilpen denborarekin:

-Udala: erabilpen orduen %28,5

-Eskola: erabilpen orduen %71,5

ERANSKINA

Araudi honen helburua, Angiozarren, eskolako goiko pisuan kokatuta dagoen **Arbiaska Udal Aretoa**ren erabilera arautzea da.

ARETOAREN HELBURUA

- *Arbiaska* Aretoa Angiozar Bailarako eta Bergarako gizarte eta kultur eragileak, baita norbanakoak antolatutako jarduerak aurrera eramateko espazioa da.
- Espazio honetan gauzatuko dira: bilerak, kultur jarduerak, hitzaldiak, ikastaroak, etab...

ARETOA ERRESERBATZEKO PROZEDURA

- Aretoa erreserbatzeko harremanetan jarri beharko da ludotekako langilearekin astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era.
- Udal aretoa denez ez da ezer kobratuko erabileragatik.
- Bi eragilek jarduera bera ordu/egun berean eskatzen badute, ludotekako arduraduna Auzo-alkatearekin harremanetan jarriko da irteera bat aurkitzeko, baina lehentasuna, auzoko jarduerak izango du, eta mota honetako ekintza bat izan ezean, erreserba lehenengo egin duenak.

ERABILERA ARAUAK

- Aretoa ezin izango da irabazi asmoa duen jarduera baterako erabili (klase partikularrak, enpresen formazio/bilerak...).
- Erabiltzaileek aretoa aurkitu duten moduan utzi beharko dute, horretarako bertan eskuragarri izango dira garbiketarako gutxieneko baliabideak (erratza, trapua, etab...).

ARETOAK ESKAINTZEN DITUEN BALIABIDEAK

- Arbela: 180 X 120 zm-ko neurrikoa, baita hau erabiltzeko rotuki eta ezabagailua (ezin izango da kanpoko errotulagailurik erabili, soilik arbel mota horretarako bertan daudenak).
- Proiektore finkoa, soinu sistema eta pantaila
- Hogeita aulki (gehiago behar izanez gero eskatu egin beharko dira)
- Lau mahai mugikor.
- Bi ordenagailu sarera lotuta.



